

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Combina tu cocina

Batzuen artean

ELKAR

280 orrialde

27,50 euro


Lau sukaldari gazteren errezetak

Asier Abal, Rubén Trincado, Pablo Bassi eta Edorta Lamo sukaldari gazteek elkarlanean egin dituzte *Combina tu cocina* liburuan aurkezten diren 320 sukalde errezetak. Unai Aranek eginiko azalarekin eta Jessica del Camporen argazkiekin –edonoren gosea pizteko modukoak– argitaratu da liburu hau. Edozein lehengai harturik –direla arrautzak, txipiroiak edo tomateak– hornigaiak aldatuz lor daitezkeen plater ezberdinetako adibide gozoak eskaini dituzte bertan. Liburuan agertzen diren proposamenen sortzaile guztiek Donostiako jatetxe ezberdinetan

lan egiten dute. Ruben Trincadok eta Pablo Bassik Ulia auzoko Mirador-en; Edorta Lamok A Fuego Negro jate-txean, eta Asier Abalek Illarran. ■

Pirinioetan ibiltzeko gida

Sua argialetxeak kaleratutako mendi gidaren izenburu zehatza hau da: *100 cumbres de los Pirineos. Itinerarios por toda la cordillera. Ascensiones, paseos, excursiones. Las rutas más bellas y las cimas más emblemáticas*. Mendizaletasuna piztu berri zaienei zuzendutako eskuliburua da. Liburuak *El mundo de los Pirineos* aldizkariaren ale berezietan eskaini dituzten edukiak biltzen ditu, batik bat *Edonork igotzeko erraztenak diren tontorrak* eta *50 gailurrik ederrenak* lanetan plazaratutakoak. Aldizkarian eskaintzen ziren koloretako argazki ederrak ez dira gidan agertzen. Edonola ere, Pirinioetan adituak diren Luis Alejos, David Atela, Manel Figuera, Gorka López, Alberto Martínez Embid eta Enric Soleren zehaztasunak oso ondo etorriko zaizkio gailur horietara joan nahi duen edonori. ■




100 cumbres de los Pirineos

Batzuen artean

SUA

220 orrialde

13 euro



Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn

Batzuen artean

ARARTEKO


448 orrialde

Gazteen etxebizitza eskaerari EAEn ematen zaion erantzuna

Arartekoak plazaratutako azterketa honetan Euskal Autonomia Erkidegoan martxan dagoen gazteentzako etxebizitza politika publikoa aztertzen da, Europako ereduarekin konparatuz. Zazpi atal nagusitan banaturik dago azterketa. Helburua azaltzen duena da aurrenekoa. Bigarrenean aferak gazteengan nola eragiten duen aztertu dute. Europaren ikuspegitik egindako hurbilketa da hirugarrena eta EAEn eta Estatuan nola landu den, laugarrena. Bosgarrenak EAEn gazteei zuzendutako etxebizitza politikak ditu hizpide, Europaren eta Espainiako estatuaren ikuspegitik. Gazteei zuzendutako etxebizitza politikan erabilitako tresnen eta hartutako erabakien konparaziozko analisisa da seigarrena. Eta gomendioak datoz azkenik. ■

Literatura eta zinea hizpide

Euskal Idazleen Elkarteak plazaratzen duen *Hegats* aldizkariaren 39. zenbakian, literaturak eta zineak elkarrekin duten zerikusia hartu dute aztergai. Batetik, gaia-aren gaineko elkarrizketa sakona egin dio Mikel Asurmendik Anjel Lertxundiri. Bestetik, Aitor Aranak *Zinema-Aretoa* idazlana eskaini du. Goizalde Landabasok *Praktika-ariketa*. Katixa Agirrek, *Ongi etorri Hollywoodera, Lolita*. Harkaitz Canok, *Zinea eta Literatura*. Laura Mintegik, *Mendearen hausturaren lekuko*. Aritz Gorrotxategik, *Euskal zinearen historia, ibilbide bat*. Iñaki Lazkanok, *Jiri-Menzel, Hrabalen espiritua aldarri* eta *Olatu Berri Txekiarrak, bitxilore ibartuak Pragan*. Iratxe Retolazak Fito Rodriguezen *Kasandra leiboan* lana hartu du hizpide. Eta azkenik David Tijerok Koldo Mitxelena eta Inazio Mujikaren *Denbora bateko zinema paperak (1954-1961)* aztertu du. ■



Hegats

Batzuen artean

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

172 orrialde

7 euro



Ravel
Jean Echenoz
 MEETOK
 122 orrialde
 15 euro

Maurice Ravelen bizitza oinarri duen nobela

Isekarako joera duen idazlea da Jean Echenoz (Orange [Vaucluse] 1947). Sari potolo askotxo irabazia ere bai, —besteak beste 1983an *Cherokee* eleberriarengatik jaso zuen Médicis saria eta 1999an milioi eta erdi irakurle izan zituen *Je m'en vais* izeneko lanarengatik irabazi zuen Goncourt saria gogora genitzake—. Gerardo Markuletak euskaratu duen *Ravel* berriz, 2006an eman zuen argitara. Meetok argitaltxeak kaleratu duen liburuan, Ravelen ezagutzaile fina den Joaquín Achúcarro euskal piano-jolearen aitzinsolasa agertzen da. 1875ean Ziburun sortu eta 1937an Parisen hil-

dako Maurice Ravel musikari handiaren azken hamar urteak zehatz mehatz islatzen ditu nobelak. ■

Mekanikarekin liluratuta zegoen printzesaren abenturak

Ikertzaile agentzia guztiz berezia dute martxan Aglae neska panpoxak eta Napoleon alferrak: SOS Printzesak deitzen da, eta horietakoren bat arriskuan dagoen lekuan azalduko dira biak. *Xangaiko piratak* kontakizunean, Helena printzesarri lagundu behar diote Suitzako ikastetxe dotore batera. Haren gurasoak itsasoan bizi dira, estatu kolpe batek tronutik bota zituenetik, eta nahikoa izuturik daude beren alaba bakarra mari-mutil samarra delako. Mekanika ondo ikastea nahi luke printzesak beste ezeren gainetik. ■

Xangaiko piratak

Christian Jolibus

IBAIZABAL

48 orrialde / 6,80 euro



RAMON OLASAGASTI

«Liburua, mendirako pasioz bizi izan diren guztiei eskainia da»

Mendiminaren oinarrian zer dago?

Mendiak, behin edo behin, lagunen bat, ezagunen bat eramaten du, eta samina zabaltzen. Gertutasunaren arabera, batzuk oroituko ditugu, eta beste batzuk ez. Mendian euskaldun dezentet hil baita. Gutxi, oso gutxi, ordea, errepidean edo lan istripuan hil direnekin alderatuz gero.

Zer aurkituko du irakurleak lan honen orrialdeetan?

Mendirako pasioz bizi izan ziren 22 lagunen ibilbidea. Bizitza eskutik hartu eta segundo bakar bat ere alferrik galtzen utzi nahi izan ez zuten hainbat mendizalaren arnasa. Hogeita biren bizitza bizia dago liburuan, baina lerro artean beste askoren tau-padak ere suma daitezke. Finean, mendiminez bizi izan ziren guztien grina hori islatu nahi izan dut. Horregatik, lanaren muinean ere hori dira Antton Ibarguren edota 1970eko uztailen Atxarten hil zen Javier Iciar bezalakoak. Eta, nola ez, Loro Pikabea, Xabier Zubieta eta Pedro Udaondo ere bai.

Eta lan honen barnekoenean zer dago?

Bizitza galtzeraino, mendian, eskaladan, alpinismoan dabilenak zer bilatzen duen jakin nahiko du irakurleak, beharbada. Ez genduke asmatzen jakingo erantzun egoki bat. Pasioek ez dutelako arrazoiaren logikarik ulertzen; inork ez duelako deskubritu oraindik maitasuna zer materiaz egina dagoen, maiteminduak elkarri halako indarrez katigatzeko, edo mendizaleak mendiari. Erantzun asko inprobisat litezke, baina iduri luke desenkusa bila ari garela, heriotza ekarri dien zaletasun hori justifikatu nahirik bezala. Eta ez, pasioak ezin litezke ez azaldu, eta ez justifikatu. Sentitu egiten dira, ala ez.



egileari galdezka

Joan zaizkigun 22 euskal mendizaleen bizitza bizia

Bete-beteko gozamena dakarkiguten gauzek, sufrimendu berebizikoa ere ekar diezagukete; ezin dezakegu

*gozatu, sufritu ere neurri berean egin dezakegula onartu gabe. Halakoa da maitasuna (...) mendiarekiko edo beste edozerekin. Halakoa da bizitza. Juanjo San Sebastian mendizalaren hitzak dira. K-2ko ihesean galdu zuen Atxo Apellaniz mendilaguna gogoan idatzi zuen *Cita con la cumbre* liburua. Horrela jaso du mendian, bidaletan eta aisialdian espezializatua den Ramon Olasagastik Elkar argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Mendi Minez* izenburuko lan ederrean. Ondotxo ikasia dugu guztiok bizitza heriotza arteko denborabitea dela. *Ezinezkoa da Herio ezin kantoitan egongo den ezin jakitea*, gogortuko digu Olasagastik, azpimarratzeko, bizitzak ez lukeela izan behar besterik gabe irautea, heriotzaraino garamatzan*



Mendi Minez
Ramon Olasagasti

ELKAR

312 orrialde

29,50 euro

bidez gozatzea baizik. Horixe da, zalantza gabe *Mendi Minez* liburuaren muina. Argazki liluragarri eta hunkigarrien bidez, mendirako pasioz bizi izan ziren hogeita bi euskal herritarren ibilbidea jasotzen du liburua. Guztiei mendiak ematen zien arnasa. Eta gehientuenek mendiari begira, gailurrera iritsi nahian edota beherako bidean zirela jada, eman zuten bere azken arnasa. ■